ARTX. E.I./S.E.V.
ASMOZ TA JAKITE
Saila
Agiri Zk.

BIZKAI'KO
**LATERKI-BATZORDIA**
Idazkorokaŕa

# EUZKO-IKASKUNTZA

Igazko urtian Oñati'n egindako astebeteko Batzaldi gomutagaŕijetan, an baturiko notin bikain gustijen gurari bixi-sutsuben gogo ta asmoz, geure Euzko Eŕi maite oni dagokijozan ikaskintza gustijak adiraltzeko, Bazkun egoki bat sortu ta irastia erabagi zan. Amen dozube Bazkun ori. **Euzko-Ikazkuntza** deritxo.

Euzkadi'ko Aldundijak ta Udalik nausijenak Bazkun oni urgazpena emon dautse, baña beste Udalik askok, oŕaitiño, eztautse ondiño laguntasunik erakutsi. Oroen laguntasuna, baña, biaŕ-biaŕa dau. Gustijai, ba, txiki ta andi, landeŕ ta aberatz, oroi, diñogu, lagun eske ots eta dei egiten yake.

**Euzko-Ikaskuntza** onuragin onen sal̄a ta zeregiña, Euzko Eŕi gustijan jakintasuna zabaldu ta ereitia da, baña oŕetarako zegaz egin euki biaŕ da. Beraz, Bazkun onen egikixunetatik geure eŕi maite onen eŕai ta zastrayetara, indaŕtu ta sendotu dagijazantzat, baŕenduko dan eznia, gustizko onuragiña ixan dadintzat, gustijen laguntasuna biaŕ dau. Beraz, ba, Udalen urgazpena egoki datoŕke.

Azaldutako asmo ta gurari txalogaŕijok aintzat artuki, Batzorde onek Udal gustijei ots egitia erabagi dau. Amen ba, Batzorde onen deya, ta zeuk Lendakari oŕek, Udalburu zaran ezkero, erantzun bijotzez ta maitekiro ots abeŕkoi oni, **Euzko-Ikaskuntza** aunentzat urte-sarija ixentaurik.

**Ikaskuntza-Bazkun** onek uri ta eŕijen aldezko asmo onurakoŕak daukaz, udaldaŕ ixakerea ta bixikerea azteŕtu ta zuzendu gura dauz, ta gusti oŕen adiralguntzea gertuteko, aurten bertan Udaldaŕ-Batzaldi bat egiteko gogua dauka. Batzaldira erduko diran Udalen ordezkari ta aldunai, iñungo eŕaztasunak eta eskubidiak emongo yakez, euren Udalak **Euzko-Ikaskuntza**'n arpidedun baldin ba-dira.

Ez gelditu ba, azkenen Bizkai'ko Udalok.

Jauna zeugaz.

Bilbao 1919'gko. Oŕil̄a-1'gn.

*Toŕe taŕ Maren.*
**Lendakari-Orkea,**

*Estetxa taŕ Joseba Mirena.*
**Idazkarija.**

.................................................'ko *Endore-Lendakari jaunari.*

ARTX. E.I./S.E.V.
Saila
Agiri Zk.

**COMISIÓN PROVINCIAL**
DE
**BIZKAYA**

**CIRCULAR**

Constituída la **Sociedad de Estudios Vascos,** como resultado del trascendental Congreso de Oñate celebrado el año último, dicha Sociedad, á la que prestan ya su apoyo moral y material las Diputaciones vascas y algunos de los principales Ayuntamientos del País, desea contar también con el que, cada una en medida de sus fuerzas, puedan prestarle aún las más apartadas y reducidas Corporaciones municipales del Pueblo Vasco, á todo el cual intenta dicha Sociedad llevar su obra de cultura, para la que considera la cooperación de esas entidades, medio necesario y aliento tan vigoroso como nacido de lo más hondo de ese pueblo á quien su labor se destina.

Haciéndose cargo de tan plausibles deseos, la Comisión Provincial ha acordado dirigirse á V. como Presidente de ese Ayuntamiento, recomendándole con vivo interés acoja el llamamiento que la **Sociedad de Estudios Vascos** le dirige, inscribiendo á dicha Corporación como Socio Protector, mediante la consignación de una cuota fija anual.

En la seguridad de que las iniciativas de la **Sociedad de Estudios Vascos** en beneficio de la vida local, las cuales tratan actualmente de concretarse mediante una Asamblea municipal que se ha de celebrar este mismo año y en la que ya á los representantes de los Municipios inscritos se concederán especiales derechos, compensarán con creces á ese Ayuntamiento del exiguo sacrificio que en cuanto alcance su posibilidad, se requiere ahora de él para el cumplimiento de fines tan elevados.

Dios guarde á V. muchos años.

Bilbao 1.º de Mayo de 1919.

**El Vicepresidente,**

**El Secretario,**

Sr. Alcalde de ..............................................................................